

ANALISIKO ETA KALITATE KONTROLEKO LABORATEGIA (HZ GOI MAILA)

Ezarri berri den LOE Heziketa Zikloa. Indarrean 2009-2010 ikasturtetik aurrera

ZIKLOAREN HELBURUAK

- Titulu bakoitzari dagokion produkzio-sektorearen erreferentzian isladatuta dagoen lanbide-gaitasuna eskuratzeko heziketa ematea.
- Dagokion produkzio-sektorearen antolamendua eta ezaugarriak eta sektore horretan lanbideratzeko mekanismoak ulertzeko, oinarrizko lan-legeria eta lan-harremanetatik eratortzen diren eskubide eta betebeharrak ezagutzeko, eta segurtasun-baldintzetan lan egiteko eta lan-egoeretan sor daitezkeen arriskuak aurreikusteko beharrezkoak diren ezaguera eta trebetasunak eskuratzeko heziketa ematea.
- Etorkizuneko ikaskuntzetarako eta prestakuntzen aldaketari dagozkion etorkizuneko egokitzapenentarako motibagarria izango den nortasun eta heldutasun pertsonal eta profesionala eskuratzeko heziketa ematea.
- Lanbidean jardutearen bidez ingurugiroaren zaintza eta errespetuan eta prozesu, produktu edota zerbitzuen kalitatearen etengabeko hobekuntzan aktiboki parte hartzeko heziketa ematea.

GAITASUN OROKORRA

Laborategiaren jarduera antolatzea eta gainbegiratzea, entsegu-teknikak eta analisi fisikoak, kimikoak edo mikrobiologikoak garatu eta aplikatzea lehengaien, produktu kimikoen edo elikagaien gain, ikerketarako, analisirako edo kalitate-kontrolerako, laborategian segurtasun- eta ingurugiro-teknika egokien araupean jardunez.

GAITASUN ATALAK

Tekniko honek egiaztatu behar dituen atalak dira:

- Laginketa-plana antolatzea eta laginak hartzea.
- Metodo kimikoen bidezko analisiak egitea, emaitzak ebaluatzea eta horien berri ematea.
- Analisi kimikorako tresna bidezko teknikak aplikatzea, emaitzak ebaluatzea eta horien berri ematea.
- Saiakuntza fisikoak egitea, emaitzak ebaluatzea eta horien berri ematea.
- Saiakuntza físico-kimikoak egitea, emaitzak ebaluatzea eta horien berri ematea.
- Saikuntza mikrobiologikoak egitea eta emaitzen berri ematea.
- Saikuntza bioteknologikoak egitea eta emaitzen berri ematea.
- Laborategiko jarduera antolatzea eta kudeatzea, prozedura eta arau espezifikoak aplikatuta.

LANBIDE IRTEERAK

Lanbide-irudi honek hainbat sektoretako enpresa edo laborategietan egiten du lan, bai kalitate-kontrolera eta ikerkuntzara bideratutako materia eta produktuetan saiakuntza fisikoak, fisiko-kimikoak, analisi kimikoak eta tresna bidezkoak egin behar dituztenetan eta bai, besteak beste, ingurumenaren edo elikagaien arloetan proba mikrobiologikoak eta bioteknologikoak egin behar dituztenetan.

Lanbide eta lanpostu garrantzitsuenak hauek dira:

- Titulartasun publikoko edo pribatuko laborategietako analista.
- Laborategi kimikoko analista.
- Laborategi mikrobiologikoko analista.
- Materialen laborategiko analista.
- Nekazaritzako elikagaien industrietako laborategiko analista.
- Transformazio-industrietako laborategiko analista.
- Prestakuntzako, ikerkuntzako eta garapeneko zentroetako analista.
- Elikagaien industrietako, ingurumen-enpresetako eta industria bioteknologikoetako analista mikrobiologikoa.
- Edateko uren eta hondakin-uren analista mikrobiologikoa.
- Farmazia-industriako kontrol mikrobiologikoko analista.
- Lehengaien eta bukatutako produktuen analista.
- Industria-kimikako laborategiko teknikaria.
- Askotariko manufaktura-industrietako kalitate-kontrolerako teknikaria.
- Fabrikazio mekanikoko produktuen saiakuntzetako teknikaria.
- Eraikuntza-materialen saiakuntzetako teknikaria.

MODULUAK ETA HAIEN IRAUPENA LEHENENGO IKASTURTEAN: 990 ordu

MODULUAK	EDUKINAK	IRAUPENA
Lagintzea eta lagina prestatzea QMM	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Laginketa plana antolatzea. ✓ Laginak hartzea. ✓ Laginak tratatzeko tresneria prestatzea. ✓ Laginak prestatzea. 	231 ordu
Analisi kimikoak QAQ	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Analisi kimikorako materialak eta erreaktiboak sailkatzea. ✓ Disoluzioak prestatzea. ✓ Analisi kuantitatiboaren teknikak aplikatzea. ✓ Funtzio organikoen analisia. ✓ Analisi kimikoen emaitzak baloratzea. 	297 ordu
Saiakuntza fisikoak QEF	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Saiakuntza fisikoetarako baldintzak prestatzea. ✓ Saiakuntza fisikoetarako tresneria prestatzea. ✓ Laginak saiakuntza fisikoen bidez analizatzea. ✓ Saiakuntza fisikoen emaitzak aztertzea. 	132 ordu
Saiakuntza fisiko kimikoak QFQ	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Saiakuntza fisiko kimikoetarako baldintzak prestatzea. ✓ Saiakuntza fisiko kimikoetarako tresneria prestatzea. ✓ Laginak saiakuntza fisiko kimikoen bidez analizatzea. ✓ Saiakuntza fisiko kimikoen emaitzak aztertzea. 	132 ordu
Laborategiko kalitatea eta segurtasuna QCS	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Kalitatea kudeatzeko sistemak aplikatzea. ✓ Emaitza analitikoak tratatzea. ✓ Analisi eta saiakuntzetako laborategietan konpetentzia teknikoko aplikatzea. ✓ Segurtasun neurriak aplikatzea. ✓ Ingurumena kudeatzeko sistemak aplikatzea. 	99 ordu
Laneko prestakuntza eta orientabidea FOL	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Lan munduratzeko eta bizitza osoan ikasteko prozesua. ✓ Gatazka eta lan taldeak kudeatzea. ✓ Lan kontratuaren ondoriozko lan baldintzak. ✓ Gizarte segurantzaren enplegua eta langabezia. ✓ Arrisku profesionalak ebaluatzea. ✓ Enpresan arriskuen prebentzioa planifikatzea. ✓ Enpresan prebentzio eta babes neurriak aplikatzea. 	99 ordu

MODULUAK ETA HAIEN IRAUPENA BIGARREN IKASTURTEAN: 1010 ordu

MODULUAK	EDUKINAK	IRAUPENA
Tresna bidezko analisi QAI	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Tresna bidezko teknikak hautatzea. ✓ Tresna bidezko analisirako ekipamenduak, erreaktiboak eta laginak. ✓ Laginak tresna bidezko teknika analitikoaren bidez analizatzea. ✓ Tresna bidezko analisiaren emaitzak interpretatzea. 	200 ordu
Saiakuntza mikrobiologikoak QEM	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Saiakuntza mikrobiologikoetarako laginak eta hazkuntza inguruneak prestatzea. ✓ Saiakuntza mikrobiologikoetarako tresneria prestatzea. ✓ Saiakuntza mikrobiologikoak gauzatzea. ✓ Saiakuntza mikrobiologikoen emaitzak ebaluatzea. 	180 ordu
Saiakuntza bioteknologikoak QEB	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Proteinak eta azido nukleikoak erauztea. ✓ Proteinak identifikatzea, sekuentziatzea eta analizatzea. ✓ Mikroorganismoak identifikatzea. ✓ DNA errekonbinantearen teknologia. Klonazioa. ✓ Agente toxikoak eta mutagenikoak ezaugarritzea. 	120 ordu
Analisi eta kalitate- kontroleko laborategiaren proiektua QPL	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Proiektua egitea. 	50 ordu
Ingeles teknikoa I	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Profilarekin lotutako ahozko mezuak ulertu eta sortzea. ✓ Profilarekin lotutako idatzizko mezuak interpretatzea eta adieraztea. ✓ Herrialdearen berezko errealitate soziokulturala ulertzea. 	40 ordu
Enpresa eta ekimen sortzailea EIE	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Ekimen sortzailea. ✓ Enpresa ideiak, ingurunea eta haien garapena. ✓ Enpresa baten bideragarritasuna eta abiaraztea. ✓ Administrazio funtzioa 	60 ordu
Lantokiko prestakuntza FCT	<ul style="list-style-type: none"> ✓ Modulua burutuko den enpresaren arabera. 	360 ordu